

Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientzien arloan Euskal Herriko Curriculum Vitae onenarentzako Saria

Eusko Ikaskuntzak eta LABORAL Kutxak sari bat eratua dute Euskal Herriko Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientzien alorrean, adiera zabalenean ulerturik, curriculum gailenena duen eta jardueran dagoen pertsona ospetsu bat urtero ohoratzearren. Sarituriko pertsonaren obra osoak Euskal Herriko kultura modu eraginkorrez garatzen lagundu behar izan du.

◆ Esparruak

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientziak.

◆ Hautagaiak

Euskal Herriko garapen kulturalaren aldeko jarduera gauzatzen duten ikertzaileak, zientzialariak eta Kulturako pertsona ospetsuak.

◆ Saria

20.000 euroko sari bakarra emango da. Saria pertsona bakar bati emango zaio. Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritzi gero. Saritutako pertsona, emate ekitaldira etortzea ezinbesteko baldintza izango da saria jasotzeko. Bere ekarpen nagusiak bilduko duen artikulu bat idatzi beharko du *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, *RIEV*, delakoan argitaratzeari begira.

◆ Hautagai izateko proposamena eta formalizazioa

Hautagaiak ondorengo hauek aurkeztu ahal izango dituzte:

- Interesatuak berak
- Unibertsitateetako Institutu eta Departamentuek
- Kultur eta zientzi erakundeek

Gomendiozko gutunarekin batera, bere Curriculum Vitae osoa eta Curriculum Vitae laburtua (inprimaki berezietan ezinbestean bete beharrekoa) aurkeztu beharko da. Eusko Ikaskuntzaren webgunetik deskargatu daitezke.

Gainera, Eusko Ikaskuntzak eta Laboral Kutxak aurreko urteetan garaile irten ez diren eta egoki iritziak hautagaiak eransten dituzte, hasieran aurkezturiko curriculum egokitzen aduratzen direlarik.

Dokumentazioa, euskarri informatikoan, Eusko Ikaskuntzara bidali behar da.

◆ Epeak

Hautagaiak aurkezteko epea **2022ko martxoaren 31ean** amaitzen da.

Epaimahaiaren erabakia 2022ko maiatzan jakinaraziko da.

Sari-ematea 2022ko udan gauzatuko da, osasun egoeraren arabera.

◆ Epaimahaia

- Eusko Ikaskuntzako Lehendakaria
- Laboral Kutxako Lehendakaria
- Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorea
- Deustuko Unibertsitateko Errektorea
- Nafarroako Unibertsitateko Errektorea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Errektorea
- Pabe eta Adour Herrialdeetako Unibertsitateko Errektorea
- Mondragon Unibertsitateko Errektorea
- UNED-eko Errektorea
- Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko Zuzendaritza Orokorra

◆ Informazioa

Eusko Ikaskuntza
Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia.
Tel.: 943-310855
info@eusko-ikaskuntza.eus
www.eusko-ikaskuntza.eus